

2016rako EAeko AURREKONTU-PROIEKTUA

LAB sindikatuaren balorazioa

2015-11-30



www.lab.eus

AURKIBIDEA

Lakuaren aurrekontu paralisiak nabarmen uzten du EAJren interes falta murrizketa sozialei buelta emateko.....	5
Korresponsabilitate autonomikoa aurrekontu-estuasunetan.....	5
Gastu sozialak gero eta pisu txikiagoa aurrekontuan.....	7
Gastu soziala gure jendartearen egungo eta etorkizuneko beharren kontrako norantzan ari da garatzen.....	8

Lakuaren aurrekontu paralisiak nabarmen uzten du EAJren interes falta murrizketa sozialei buelta emateko

Urkulluren exekutiboak 2016rako aurkeztu duen aurrekontu-proposamenak 2010ean ezartzen ari ziren murrizketa nagusiak mantentzen ditu. Modu honetan, gastu publikoa mugatzearekin duen konpromisoa berresten du egungo gobernuak, eta jarraipena ematen dio prestazio sozialen eta oinarritzko zerbitzu publikoen kontrako higatze-estrategiari, Patxi Lopezen legegintzaldian hasi zena.

Itxura batean, gaizki deitutako "austeritate" politikak ere, EAJ PSEri lotuta duen egonkortasun instituzionalerako akordioaren parte ere badira. Edozein kasutan, 2016rako kontu publikoak Lakuako gobernuak erakusten duen aurrekontu-atrofiaren islada zehatza dira, sartutako berrikuntza gutxiak ikusita. Guzti hau zorraren amortizatorako ordainketek izango duten hazkunde desproporcionatua kontuan hartzen ez badugu, %25,4 egingo baitute hauek gora.

2016rako aurrekontua 10.933.3 milioi eurotakoa da, aurtengoa baino 294,3 milioi gehiagokoa. Hala ere, bueltatzea aurreikusten den zorraren zenbatekoak 181 milioitan egingo du gora, aurrekontu-hazkundearen %61,5a hartuko duen kopurua. Hortaz, zorraren ordainketa deskontatuta, gobernuaren politikak ordaintzeko benetan eskura dagoen gastuaren hazkundea 113 milioitakoa izango da soilik, 2015koa baino %1,1 xume bat gehiago.

Gainera, aurrekontu operatibo honen hazkundearen zati garrantzitsua personal gastuei bideratuta egongo da. Kapitulu honetan jasotakoak 34,4 milioitan egiten du gora eta %1eko soldata igoera aurreikusten du administrazioari langileentzat, eta 2012an murriztutako aparteko ordainsariaren %25 berreskuratzea, beste %50 pendiente utzita. Neurri hau aldebakarrez hartu du gobernuak eta ez da nahikoa inondik eta inora, 2010eko batazbesteko %5eko soldata jaitsieraren ondorengo eta hurrengo bost urteetan ezarritako soldata-izozteetako eroboterearen galera betikotzaten duelako.

Azken batean, exekutibo jeltzaleak hartu duen planteamendua indarrean dauden aurrekontuak luzatzearen antzerakoa da, maniobrarako tarte txikia uzten duelako zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko, gure jendarteak dituen gero eta beharrian handiagoei aurre egiteko edo suspertze ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko.

Baina zalantzarik gabe, iraingarriena da nolako aldea dagoen zor publikoaren exigentziak betetzera bideratutako gehiegizko ahaleginarekin eta gobernu-jarduera osatzen duten programak finantzatzera bideratutako gainontzeko gastuen hazkunde apalaren artean.

Korresponsabilitate autonomikoa aurrekontu-estuasunetan

Behin Estatuari ordaindu beharrekoa Kupoa deskontatuta, Aldundiek 9.103 milioi euro izango dituzte EAEko aurrekontua finantzatzeko, hau da, 2015ean baino 365 milioi gehiago. Hala ere, gobernuak aurrekontu-estuasunak justifikatzen saiatzen da defizit helburua txikitzeak 241 milioitan murrizten duelarik zorpetzeko gaitasun garbia.

Hala ere, salatu beharrekoa da EAJren erabaki batzuk ere lagundu dutela baliabide gehiago izatea eragozten duen egungo egoerara iristen.

Lehenik eta behin, eta gobernu iturrien arabera, foru esparruan (EAJk kontrolatua PSErekin koalizioan) ez da 2016ko diru-bilketan eragina izango duen inolako erreforma fiskal garrantzitsurik egongo. Honek baieztatu egiten du EAJ-

PSE koalizioak egungo zerga-egitura mantentzea erabaki duela, bere politika fiskala zuzendu ordez zergen kargen banaketa bidezkoagoa eta horrela zerbitzu eta prestazio publikoetan dauden benetako beharrizanei egokitutako diru-bilketa maila lortzeko.

EAEko Administrazio Orokorraren aurrekontuak – Sailkapen funtzionala

GASTUEN AURREKONTUA (milioika euro)				
Gastu politikak	2016ko aurrekontua	2015eko aurrekontua	Aldea	Aldearen %
Zor publikoa	1.170.217,6	989.517,4	180.700,2	18,3%
Auton. Erkidegoko eta Gobernuko Goi Zuzendaritza	49.999,5	49.437,3	562,2	1,1%
Administrazio Orokorra	183.269,2	202.896,6	-19.627,4	-9,7%
Kanpo harremanak	50.733,8	47.608,4	3.125,4	6,6%
Justizia	173.602,2	167.696,2	5.906,0	3,5%
Segurtasun eta Babes Zibila	612.138,4	606.489,5	5.648,9	0,9%
Segurtasun eta Babes Soziala	637.408,3	636.290,1	1.118,2	0,2%
Sustapen Soziala	351.207,6	338.742,7	12.464,9	3,7%
Osasungintza	3.416.188,4	3.390.005,4	26.183,0	0,8%
Hezkuntza	2.525.743,7	2.490.388,7	35.355,0	1,4%
Etxebizitza eta Hirigintza	112.609,9	110.722,8	1.887,1	1,7%
Ongizate komunitarioa	39.039,1	39.915,9	-876,8	-2,2%
Kultura	184.228,8	180.121,4	4.107,4	2,3%
Beste zerbitzu komunitario eta sozialak	23.980,4	11.742,2	12.238,2	104,2%
Euskararen sustapena	104.444,3	103.260,2	1.184,1	1,1%
Oinarrizko Azpiegiturak eta Garraioak	634.455,0	632.223,9	2.231,1	0,4%
Komunikazioa	19.856,5	19.754,3	102,2	0,5%
Ikerketa Zientifikoa, Teknikoa eta Aplikatua	218.383,3	206.541,1	11.842,2	5,7%
Oinarrizko informazioa eta estatistikoa	14.327,0	14.226,1	100,9	0,7%
Erregulazio ekonomikoa	28.601,8	28.619,8	-18,0	-0,1%
Finantza-erregulazioa	10.573,3	10.381,7	191,6	1,8%
Nekazaritza, Abeltzantza eta Arrantza	111.621,7	110.298,0	1.323,7	1,2%
Industria	109.600,9	104.268,8	5.332,1	5,1%
Energia	909,9	927,1	-17,2	-1,9%
Turismo	13.557,1	13.597,5	-40,4	-0,3%
Merkataritza	50.542,6	50.384,2	158,4	0,3%
Euskal Sistema Publikoaren finantza harremanak	86.058,5	82.901,7	3.156,8	3,8%

GASTUA GUZTIRA	10.933.299,0	10.638.959,0	294.340,0	2,8%
Gastua guztira zorraren amortizaziorik gabe	10.040.968,4	9.927.633,0	113.335,4	1,1%
GASTU SOZIALA	7.394.850,6	7.301.189,4	93.661,2	1,3%

Beste alde batetik, Urkulluren gobernuak troikaren ikasle txintxoak dela erakutsi du zorra eta interesen ordainketari lehentasun osoa ematerako orduan, bestelako edozein aurrekontu-beharrizanen gainetik, gastu soziala barne. Zentzu honetan, derrigorra da gure buruei galdtzea, nork eusten du benetan ustezko austeritatea?

Gogora arazi behar da EAE izan zela 2014ko zorraren helburua bete zuen autonomia-elkarte bakarrenetakoa, Nafarroa, Kanariak eta Galiziarekin batera. Gainera, metatutako zorra BPGren %15,4 da: baxuena Madrilgo Erkidegoaren ondoren (%13,3) eta autonomien arteko batazbestekoaren oso azpitik.

Azkenik, egia da 2016rako zehaztutako egonkortasun helburuak defizitaren muga BPGren %0,3ra murriztu duela (%0,7a 2015erako). Esan genezake Estatutak neurri koerzitibo ugari duela disciplina fiskaleko arauok indarrez betearazteko, finantza autonomikoen interbentzioa barne, Konstituzioaren 155. artikulua baliatuta.

Nabarmena da, Estatuko finantza autonomiko osasuntsuenak izan arren, EAerako zehaztutako defizitaren muga gainontzeko autonomi-elkarteei ezarritakoaren berdina dela. Hortaz, aienatu egiten da Kontzertu Ekonomikoa aldebiko mekanismoa dela dioen mitoa, ezta gobernu zentralarekin aurrekontu-egonkortasunaren inguruko helburuak koordinatzeko.

Egia esan, aldebikotasuna eta foralitatearen mozorroen pean izkututzen dena Estatuarekiko subordinazio politiko-administratiboko harremana da. Horren lekuko dira Lakuak gobernu zentralari eskatzen dizkion 1.200 milioi euroak, eta estatuak ordaindu nahi ez dituenak, 2008tik hona Kupoaren kalkulua eta azken likidazioaren inguruan sortutako desadostasunen ondorioz. Kopuru hau EAeko aurrekontu osoaren %11 da.

Gastu sozialak gero eta pisu txikiagoa aurrekontuan

Gobernuaren arabera, 2016an indartu egin dira politika sozialetara bideratutako gastuak. Hala ere, zintzoagoa izango litzateke onartzea ahalegin hori oso txikia dela eta eznahikoa ajuste politikoak konpontzeko.

Gastu soziala 2 bloke handi edo esparru funtzionaletan elkartzen da, Segurtasun, Babes eta Sustapen Soziala eta Izaera Sozialeko Ondasun Publikoen Ekoizpena. Hauetara bideratutako zenbatekoa 7.394,8 milioi euroakoa da, hau da, 2015erako hasieran aurreikusita zegoen kopurua baino %1,3 gehiago.

Hala ere, 2016an murrizketa nabarmena emango da gastu sozialetara bideratutako aurrekontuan. Zehazki, 2015ean gastuen aurrekontu osoaren %68,6 zegoen gastu sozialera bideratuta, datorren urterako portzentaia hau %67,6ra jaitsiko delarik. Izan ere, soilik gastu sozialaren garrantzia blindatzeko eta 2015eko aurrekontuetan zuen pisu berdinari eusteko, beharrezkoa izango zen 108 milioi gehiago inbertitzea eduki sozialeko programetan.

Ondorioz, nabarmena da aurrekontuen osagai soziala eta "pertsonetikiko konpromisoaren" aurretik beste lehentasun batzuk daudela, hala nola, zorra ordaintzea edo AHTko lanak, inbertsio errealetarako dauden baliabideen %69a pilatzen duena.

Gastu soziala gure jendartearen egungo eta etorkizuneko beharren kontrako norantzan ari da garatzen

Eusko Jaurilaritzak politika sozialetan egiten duen finantza ahaleginak beheranzko joera nabaria du; ez da joera berria, gainera. 2010. urtean, krisi eta shock ekonomiko beteko testuinguruan, sakrifizio politikak inposatzen hasi zirenetik hona, gastu soziala etengabe murrizten joan da.

Aurrekontu-exekuzioko datuen arabera, benetan exekutatuako gastu sozialaren bolumenak maximo historikoa lortu zuen 2009an. Orduz geroztik babes sozialera zuzenduriko aurrekontuaren portzentaia etengabe gainbeheran izan da; 2009an %73,9koa izatetik, %67,6koa izatera pasatuz 2016an.

Gastu sozialaren garapena EAEko aurrekontuetan

GASTU SOZIALA	Aurrekontu exekuzioa						Aurrek..	Proiektua
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Milioika euro	7.610,0	7.477,3	7.535,4	7.516,8	7.032,9	7.189,9	7.301,2	7.394,8
Gastu guztiarekiko %	73,9%	72,4%	74,1%	73,4%	73,4%	71,5%	68,6%	67,6%

Beste alde batetik, 2016ko politika sozialen aurrekontuak 215 milioi euro jaitsi da, 2009an benetan exekutatuako zenbatekoarekin alderatuz gero. Dena dela, garrantzitsua da zehaztea kalkulu honek ez duela azken urteetan eremu sozialean egin diren murrizketen benetako neurria islatzen.

Alderaketa homogenea egin ahal izateko kontua izan behar dugu 2011 eta 2012 urteen artean indarrean sartu zirela konpetentzia berrien traspasoak¹, eta traspaso horien gehiengoa politika sozialen eremuari dagokiola.

Gaur egun, izaera sozialeko konpetentzia horien balorazioa 400 milioi euro ingurukoa da. Horrek esan nahi du Diputazioek kopuru hori Estatuari ordaindu beharreko kantitateari deskontatu egiten diotela, eta kopuru hori bera Eusko Jaurilaritzari ezohiko ekarpen gisa egiten dioten bitartean, konpetentzia berri horietan gastua finantzatu ahal izateko. Beraz, ikusten da politika sozialen eremuan aplikatuak izan diren murrizketen zenbatekoa 615 milioi euro ingurukoa dela 2009ko gastuarekiko, %8 baxuagoa, beraz.

Ez dago soberan gogoratzea politika sozialek badutela funtzio birbanatzaile oso garrantzitsu bat jendarte justuago bat eraikitze bidean. Helburu nagusia da pobrezia eta desberdintasunei aurre egitea, errentaren banaketak ekitatea handitzea, oinarrizko ondasun eta zerbitzuak izateko aukera bermatzea, eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen egikaritzea posible egitea.

Hori horrela izanik ere, azken legegintzaldietan ezarritako murrizketa gogorrek ondorio guztiz negatiboak dituzte babes sozialera bideratutako politiketan eta horien gaitasun birbanatzailean. Inongo logikarik ez du gastu sozialean egiten den ahalegina jaisteak, noiz eta orain, beharrak geroz eta handiagoak direnean.

Politika sozialak jasaten ari diren erasoen ondorioz, ikus daiteke aurrekontuen "aurrezte" handienak Hezkuntza, Osasungintza eta Etxebizitzan egindako gastu-murrizketari dagozkiola.

¹ 2011 eta 2012an trasferitutako konpetentzia berriak: enplegu politika aktiboak, Marinako Institutu Sozialeko funtzio eta zerbitzuak, laneko ikuskaritzea eta segurtasun soziala, enplegu erregulazioko espedienteak, erlijiko irakalseak, osasungintza eta irakasleak kartzeletan, titulu eta ikasketen homologazio eta konbalidazioa, jabego intelektuala, itsas-arrantza ikasketak eta urpekaritzea profesionala, itsas-garraioa, titulartasun estataleko artxiboen kudeaketa eta turismoa.

Hezkuntza-politika ezinbesteko tresna da aukera berdintasuna bermatzeko eta norbere garapen pertsonal eta soziala sustatzeko. Hala ere, 2016rako Hezkuntzari esleitu zaion aurrekontua 2.525,7 milioi eurokoa da; beraz, 2009an baino 246,4 milioi euro gutxiago izango ditu, termino erlatiboetan %9 gutxiago.

Osasun arloan 3.416,2 milioi euro izango dira, 121,8 milioi gutxiago 2009ko aurrekontuarekiko (%3,4 gutxiago). Murrizketak horiekin ezinezkoa da aipatu eremuetan ditugun erronkei aurre egitea, esaterako, populazioaren zahartze progresiboari aurre egitea, zerbitzuen kalitatea hobetzea edota ikerkuntza eta berrikuntzarako gaitasuna handitzea.

Etxebizitza eta Hirigintza programek guztira 112,6 milioi euro jasoko dituzte, 2009an inbertitutakoaren erdia. Egia esanda, higiezin burbuila lehertu eta eskaria jaitsi denetik, eraikuntza lanetan ondorioak nabaritu dira. Baina administrazioa inbertsioak handitzera behartua dago, alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzeko; bestela, berriki onartua izan den Etxebizitza Legearekin sortutako espektatibak bete gabe uzteko arriskua du.

Gastua politika sozialetan – EAEko aurrekontuak

(Milioika euro)	Aurrekontu exekuzioa						Aurrek.	Proiektua
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Segurtasun eta Babes Soziala	472,1	543,1	587,3	566,5	556,2	591,4	636,3	637,4
Sustapen Soziala	188,7	89,7	394,5	530,8	345,3	308,4	338,7	351,2
Osasungintza	3.538,0	3.536,6	3.398,8	3.357,8	3.294,0	3.336,6	3.390,0	3.416,2
Hezkuntza	2.772,1	2.688,6	2.639,5	2.553,3	2.405,3	2.512,4	2.490,4	2.525,7
Etxebizitza eta Hirigintza	223,1	187,0	127,0	150,4	128,2	109,8	110,7	112,6
Ongizate Komunitarioa	55,3	89,9	67,4	50,4	34,7	35,5	39,9	39,0
Kultura	239,7	238,2	224,1	210,6	187,5	206,2	180,1	184,2
Beste Zerbitzu Komunitarioak	17,9	9,2	7,6	18,1	9,0	9,4	11,7	23,9
Euskararen Sustapena	103,1	95,0	89,1	78,9	72,7	80,3	103,3	104,4
GASTU SOZIALA GUZTIRA	7.610,0	7.477,3	7.535,4	7.516,8	7.032,9	7.189,9	7.301,2	7.394,8

Baina, gainera, izan dira gogorki zigortuak izaera soziala duten beste politika batzuk ere, 2009ko gastu mailarekin alderatuz eginiko murrizketen ondorioz: Ongizate Komunitarioa (%29,4ko beherapena izan duena), ingurumenaren babeserako partidei lotua; eta Kultura, zeinaren kreditua %23 jaitsi den).

Beste alde batetik, enplegu politika aktiboetan konpetentziak eskuratu izanak azaltzen du Sustapen Sozialeko programetan egindako gastuaren gorakada. Beste Zerbitzu Komunitario batzuetako gastua ere hazi da, datorren urteko hauteskunde autonomikoen atarian.

Euskal Herria, 2015eko azaroaren 30ean